

# EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kiolerrekorrak.eus/>



**2022ko kirol errekorrak**

**2022ko marka berriak**

.....

**HERRI KIROLAK**

Emakumeak

.....

Donostia, 2022ko abenduaren 21a

# ALBISTEAK

→ <https://kirolerrekorrak.eus/emakumezkoen-triatloiaren-aurreneko-marka-ezarri-dute-bizkaitar-taldekoek/>

## **Emakumezkoen triatloiaren aurreneko marka ezarri dute Bizkaitar taldekoek**

2022.08.28 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, HERRI KIROLAK, MARKAK

Taldekako Herri Kiroletako Emakumezkoen Triatloiaren lehenengo edizioa lehiatu zen pasa den ostiralean Elgoibarren, non 15 minutu eta 30 segundoko denborarekin garaipena eskuratu zuten bizkaitarrek, bidenabar txapelketako lehen marka ezarriz

Iragan ostiral arratsaldean jokatu zen Elgoibarko Aita Agirre plazan Taldekako Herri Kiroletako Emakumezkoen Triatloiaren lehenengo edizioa. Lau talde lehiatu ziren eta txapela Bizkaitar taldearentzat izan zen: Irati Astondoa aizkoran, Karmele Gisasola Zelai III.a harri jasotzean eta Garazi Arruti txingak eramaten.

Herriko plaza beteta zegoela aritu ziren herri kirolariak nor baino nor gehiago txapela etxeratzeko asmoz, bertan bildutakoek txalo zaparrada handiekin goraiatu zutelarik haien ahalegin eta sakrifizio handia.

Triatloia bi zatitan banatu zen, eta lehenengoan talde gipuzkoarra eta talde nafarra aritu ziren. Nafarrak nagusitzen hasi ziren eta modu berean amaitu zuten. Alde handiena aizkoran eman zen, non Nerea Sorondok errenta handia eskuratu zuen eta hortik aurrera probaren buru izan ziren. Sousak eta Martinek beren espezialitateko lana ondo bete zuten eta aldea mantendu zuten. Hala ere, emoziorako tartea ere egon zen azkenean, Sorondo aizkolariak azken kanaerdikoan izerdia bota behar izan baitzuen Arrutiren aurretik bukatzeko.

Probaren lehen zatian emozio gogorak izan baziren, bigarrenean areagotu egin ziren. Mintxetak eta talde bizkaitarrak ikuskizun zirrargarria eta parekatua eskaini zuten, aizkolarien espezialitatean erabaki zelarik lehia. Laiene Pikabea 17 urteko hernaniarra saiatu egin zen azken unera arte, baina ezin izan zuen Irati Astondoa espezialista handia gaingitu.

Egurrola Arruti baino azkarragoa izan zen txingetan, eta Orbe eta Zelai III.ak, berriz, hogeita zortzi jasoaldi egin zituzten antzeko denboran. Azkenean, Astondoak bere taldearen denbora 15:30ean gelditu zuen, hartara Emakumezkoen lehen herri kirol triatloi honen garaipena eskuratu zutelarik, txapelketako lehen marka ezarriz. Bigarrenak nafarrak izan ziren, 16:54ko denborarekin, hirugarrenak gipuzkoarrak (17:05) eta laugarrenak Mintxeta taldekoak (18:27).

→ <https://kirolerrekorrak.eus/udane-ostolaza-garaile-euskadiko-i-kintopeko-harri-jasotze-txapelketan/>

## **Udane Ostolaza garaile Euskadiko I. Kintopeko Harri-jasotze Txapelketan**

2022.08.22 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

Kintopeko lehenengo emakumezkoen txapelketa izan da honakoa eta beraz Ostolazak aurreneko marka ezarri du, 2.500 kilo altxatuta 50 jasoalditan.

Pasa den ostegunean, hilak 18, Gernikan jokatu zen emakumezkoen Euskadiko I. Kintopeko Harri-jasotze Txapelketa, bertan hiru neska lehiatu zirelarik: Aroa Sanchez eta Udane Ostolaza oriotarrak, eta Olaia Esnaola azpeitiarra.

50 kiloko zilindroarekin hiru minutuz aritu ziren lanean, eta 50 kiloko kubikoarekin beste hiru minutuz eta azkenean Ostolaza nagusitu zen, eta berarentzat izan zen txapela. Kintopeko lehenengo emakumezkoen txapelketa izan da honakoa eta beraz Ostolazak aurreneko marka ezarri du, 2.500 kilo altxatuta 50 jasoalditan.

Sanchez izan zen bigarren, eta Esnaola, berriz, hirugarren, hurrenez hurren. Joseba Ostolaza Harri Eskolakoak dira hirurak (gaur egun bost harri-jasotzaile emakume aritzen dira bertan).

Ostolazak 32 altxaldi eman zizkion zilindroari, eta 18 kubikoari; Sanchezek 29 eta 19 jasoaldi egin zituen; eta Esnaolak, berriz, 27 eta 17 altxaldi lortu zituen.

Sailkapena

Udane Ostolaza 2.500 kilo, 50 altxaldi

Aroa Sanchez 2.400 kilo, 48 altxaldi

Olaia Esnaola 2.200 kilo, 44 altxaldi

Zazpi urterekin hasi zen Ostolaza harria jasotzen, 13 urterekin 68 kiloko errektangularra, eta 14 urterekin 63 kiloko kubikoa eta 50 kiloko bola jaso zituelarik. Marka horiek, ordea, ez ziren ofizialak. 2020an 15 urte betetzen zituenez, federazioko lizentzia eskuratu zuen eta bere lehenengo marka ofiziala urte horretan erdietsi zuen, 14 urterekin 75kg-ko harria ofizialki jasotzen zuen lehen emakumea izan zelarik.

Plazaz plaza dabilta uda honetan harri-jasotzaile gazteak, emakumeek kirol honetan hartu duten indarra azpimarratzekoa delarik, egunetik egunera gehiago direlarik harri-jasotze lanetara animatzen direnak. Lehen herri kiroletara gerturaten zirenak baserri girokoak izaten ziren baina orain, ordea, indarra lantzea gustatzen zaion kirolari asko hurbildu da, zaletasuna zabaldu denaren islada.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/karmele-gisasolak-uliako-harria-txapelketako-lehen-marka-ezarri-du/>

## **Karmele Gisasolak Uliako Harria txapelketako lehen marka ezarri du**

2022.08.14 | EMAKUMEAK, HERRI KIROLAK, MARKAK

Landu gabeko 70 kiloko harriarekin lehen aldiz jokaturiko emakume harrijasotzaileen txapelketa honetan nagusitu zen mallabiarra, palmaresa estreinatu eta aurreneko marka ezarri zuelarik

Iragan larunbatean, Donostiako Trinitate plazan lehiaturiko harrijasotze hitzorduko berrikuntza nagusia Uliako Harriaren txapelketa izan zen. Emakumeen txapelketa izan zen lehen aldiz, eta parte hartze altua izan zuen lehiak, Igeldoko Harrikoa baino altuagoa, hamar harri-jasotzaile atera zirelarik plazara: Ainitze Zumeta zarauztarra, Karmele Gisasola mallabiarra, Udane Ostolaza oriotarra, Rakel Arranz donostiarra, Naiara Zumeta errenteriarra, Aroa Sanchez oriotarra, Ane Zinkunegi usurbildarra, Lierni Osa zarauztarra, Olaia Esnaola azpeitiarra eta Marina Blanco palentziarra.

Estreinakoz lehiaturiko txapelketa honetan 70 kiloko mole irregularrekin aritu ziren kirolariak. Landu gabeko harri hau, Uliako Harria izenez bataiatua izan da, mendi honetako itsaslabarretatik erauzia izan delako.

Azkenean, Karmele Gisasolak on egin zituen favoritotzat jotzen zuten pronostikoak, eta lehen irabazlea izan zen, 16 jasoaldi eginda. Ainitze Zumetak (hamahiru) eta Lierni Osak (hamabi) osatu zuten podiuma.

Marka horrekin, Karmele Gisasolak Uliako Harriaren palmaresa estreinatu zuen eta bere izena herri kirolen egutegiko hitzordu garrantzitsua izateko asmoz jaiotako lehiaketa honen historiara pasako da.

Hemen, sailkapena osorik:

Karmele Gisasola – 16 jasoaldi  
Ainitze Zumeta – 13 jasoaldi  
Lierni Osa – 12 jasoaldi (pisu gutxiago)  
Aroa Sanchez – 12 jasoaldi  
Ane Zinkunegi – 11 jasoaldi  
Raquel Arranz – 10 jasoaldi  
Udane Ostolaza – 9 jasoaldi  
Olaia Enaola – 8 jasoaldi  
Naiara Zumeta – 6 jasoaldi  
Marina Blanco – 3 jasoaldi

→ <https://kirolerrekorrak.eus/emakume-harri-jasotzaileak-markak-hausten/>

## **Emakume harri-jasotzaileak, markak hausten**

2022.07.26 | EMAKUMEAK, HERRI KIROLAK, MARKAK

Azken urtean emakumezkoen harri jasotze esparruan berpizkundera eman da, erronka berriei atea irekiz

Azken urtean emakumezkoen kopuruak gora egin du harri jasotze esparruan, gero eta gehiago direlako harria jasotzera animatzen direnak, emakumeak plazan herri kiroletan ikustea arraroa zen garaia atzean utzita.

Arrazoiak ezberdinak dira, esaterako, erakundeak eta federazioak emandako laguntza kirolean gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko, Joseba Ostolazaren Harri Eskola bezalako ekimenak eta emakumeei egokitutako arautegia zein txapelketak eta harriak sortu izana.

Pasa den igandean, uztailaren 24an, Aritzbatalde pilotalekuan lehiatu zen Zarauzko Bi Harri Txapelketa gorakada horren lekuko argia da.

Bertan, aurten ere emakume zein gizonzkoen lehia egon zen eta lehenengo aldiz, gizon adina emakume aritu ziren, seina gizonzko eta emakumezko atera baitziren plazara.

Emakumezkoen kasuan, bigarren edizioa izan da aurtengoa, iaz Zarautzen jokaturakoa izan zelarik emakumeek harri baldarrekin inoiz jokaturako lehen txapelketa.

Emakume harrijasotzaileak zazpi minutuko saioan aritu ziren Jai Txiki (63 kilo) eta Mollarri (51 kilo) harriekin, horiek tartekatuz. Zelai III.a mallabitarrak lortu zituen jasoaldi gehien, 33, Jai Txiki harriarrekin 16 altxaldi burututa eta Mollarrirekin 17. Gisasolak bere iazko marka puskatu zuen, emakumezkoen lehia aurrenekoz jokaturakoan baino hamar altxaldi gehiago eginda.

Bigarren posturako lehia bizia egon zen, izan ere, Lur Errekondo usurbildarrak (14+14) eta Ainitze Zumeta zarauztarrak (14-14) 28rekin berdindu zuten, baina Zumeta bietan arinena denez, beretzat izan zen bigarren postua. Lierni Osak (12+12) laugarren bukatu zuen 24 altxaldirekin, eta Marina Blanco valentziarrak bosgarren, jasoaldi bat gutxiagorekin 23 (11+12). Udane Ostolaza izan zen txapelketako gazteena, eta seigarren bukatu bazuen ere, saio serioa osatu zuen, 19 altxaldirekin (9+10).

Gizonzkoen lehian, Mikel Lopetegi Urrak jantzi zuen txapela 28 jasoaldi gauzatuta (14+14), baina berak iaz ezarritako errekorretik hiru altxaldira geratu zen. Orduko hartan, Urrak Jose Ramon

Iruretagoiena Izeta II.aren marka hobetu zuen, eta ez nolana: 25 altxalditan zegoen errekorra, eta Urrak 31 altxaldi egin zituen.

Abuztuaren 13an, berriz, Igeldoko Harria txapelketa jokatuko dute Igeldo harri baldarrarekin, eta lehen aldiz, emakumezkoen lehiaketa ere izango da. Txapelketan sei gizonen izena eman dute eta hamar emakume, beraz, aurtengoan emakume gehiago izango dira, arestian aipatu berpizkunde horren adierazle.

→ <https://kiollerrekorrak.eus/nerea-arrutik-eta-amalur-arbelaitzek-irabazi-dute-binakako-pentatloia-errekorra-aise-onduta/>

Nerea Arrutik eta Amalur Arbelaitzek irabazi dute Binakako Pentatloia, errekorra aise onduta  
2022.06.20 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, HERRI KIROLAK

Egin beharreko lanak 24.01ko denboran amaituta, bost minutuan ondu dute iaz Garazi Arruti eta Lucia Orbek lortutako marka, lehendabiziko aldiz emakumeak pentatloian lehiatu zirenean

Nerea Arruti eta Amalur Arbelaitz debutariak izan ziren azkarrenak Tolosako zezen plazan, larunbatean jokaturiko Binakako Pentatloian. Emakumezkoetan lehiatzen zen bigarren aldia izan da aurtengoa eta garaileek, iazko errekorra aise ondu zuten.

Binakakoaren bigarren edizio honetan aurrenekoz, hiru bikote lehiatu dira. Garazi Arruti-Lucia Orbe eta Karmele Gisasola Zelai III.a-Ansorregi bikoteak aritu ziren iazko finalean, eta, oraingo honetan, Nerea Arrutik eta Amalur Arbelaitzek osatutako bikotea batu zitzairen.

Egin beharreko lana ez zen lehenengo edizioan egindakotik aldatu: 63 kiloko bola hogeitaz aldiz altxatu, 250 kiloko harriari tiraka bi plaza osatu, 45 ontzako bi enbor moztu, 25 kiloko txingekin sei plaza osatu eta plazari birak emanez bi kilometro korrika egin.

Esan bezala, Arrutik eta Arbelaitzek marka berria ezarri dute, 24.01 eginez. Bost minutuan ondu dute iaz Garazi Arruti eta Lucia Orbek lortutako marka, lehendabiziko aldiz emakumeak pentatloian lehiatu zirenean, Azpeitiako zezen plazan. Bigarren izan dira Lucia Orbe eta Garazi Arruti (26.52) eta hirugarrenak Karmele Gisasola eta Uxue Ansorregi (27.39).

Orbek eta Arrutik pixka bat lehenago bukatu zuten harri-jasotze proba, baina giza proban Arruti eta Arbelaitz aurretik jarri ziren eta bukaera arte mantendu ziren lehen postuan. Aizkoran, minutu bat eta 15 segundoko alde ireki zuten bigarren bikotearekiko eta bi minutu baino gehiago, hirugarrenarekiko eta txingak jasotzen hasi zirenerako, beste bi bikoteak bigarren enborarekin ari ziren oraindik.

Azken proba, bi kilometro korrika egitearena, abantaila handiz iritsi ziren, baina bikote txapelkunak ahal zuen guztia eman zuen errekor berria jarri ahal izateko eta helburua aise lortu zuten azkenean.

→ <https://kiollerrekorrak.eus/idoia-etxeberria-da-harririk-pisutsuena-jasoa-duena/>

**Emakumeetan, Idoia Etxeberriak jaso ditu harririk pisutsuenak**  
2022.04.3 | EMAKUMEAK, ERREKORRAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

Euskal Herriko errekorra ditu: 164,4 kg.-ko harria bi eskurekin, eta 118 kg.-koa esku batekin

Idoia Etxeberria Iktza (Orio, Gipuzkoa, 1992ko urriaren 7a) jaso ditu harririk pisutsuenak.

2016ko ekainean, 164,4 kg.-ko errektangularrari 2 jasoaldi egin zizkion. Eta horixe dugu, gaur

egunera arte, Euskal Herriko harri-jasotze errekorra emakumeen artean. Plazan hamabi urte aritu ondoren 2018ko uztailean hartu zuen erretiroa, artean harri-jasotzearen gailurrean zelarik.

Esku bakarrekin ere inoiz emakume batek altxa duen harririk pisutsuenaren errekorra ere berea du Etxeberriak, 2016ko apirilaren 31n Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan 118 kg jasota.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/udane-ostolaza-da-14-urterekin-75kiloko-harria-ofizialki-jasotzen-duen-lehen-emakumea/>

## **Udane Ostolaza da 14 urterekin 75kiloko harria ofizialki jasotzen duen lehen emakumea**

2022.03.29 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, HARRI-JASOTZEA

2020ko otsailaren 8an lortu zuen oriotarrak errekorra, Aritzbatalde kiroldegian

2020ko otsailaren 8an burutu zuen Udane Ostolaza oriotarrak marka saiakera, Aritzbatalde kiroldegian, 18:00etan hasi zen herri kirol jaialdian.

Hilabete eta erdi prestaketa lanetan pasatu ondoren, 14 urte besterik ez dituen Ostolazak 75 kiloko kubikoa behin jasotzea zuen helburu, baina 2 minutuan hiru altxaldi eginda, gustura gelditu zen gaztea. Erraz lortu zuen marka saiakera gainditzea oriotarrak, eta beraz, Joseba Ostolazaren alabak txapela merituz jantzi zuen.

Hartara, Udane 14 urterekin 75 kiloko harria ofizialki jasotzen duen lehen emakumea da.

Zazpi urterekin hasi zen Ostolaza harria jasotzen, 13 urterekin 68 kiloko errektangularra, eta 14 urterekin 63 kiloko kubikoa eta 50 kiloko bola jaso zituelarik. Marka horiek, ordea, ez ziren ofizialak. 2020an 15 urte betetzen zituenez, federazioko lizentzia eskuratuko zuen eta Zarautzen lorturiko errekorra bere lehenengo marka ofiziala izan zen.